

# B

BARREN

TOKIKOM

**“Ez dakit ez ote diren  
kooperatibismoaren  
ideiak apaltzen ari”**

Jesus Mari Astigarraga,  
Danobat-eko presidente izandakoa

# SAGARDOTEGIRA GOAZ!

Elgoibarko Izarrako lagunekin egun eder bat pasa nahi baduzu, animatu eta eman izena!

Martxoak 15, larunbata

- Eguerdian irtengo gara Elgoibartik, autobusean.
- Astigarragako Larrarte sagardotegian bazkalduko dugu.
- Nahikoa jan eta eden ondoren, Astigarragara jaitsiko gara parrandara.
- Geuedian hartuko dugu Elgoibarrera bueltatzeko autobusa.

Dultzaineroak lotuta dauzkagu, eta nahi beste aukera izango dugu kanturako eta dantzarako.

**Etorri eta ez zara damutuko!**

Prezioa: 40 euro (autobusa, joan-etorrirako, eta sagardotegiko jan-edana)

Izena emateko: [elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com](mailto:elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com) / 943 74 16 26 (azken eguna: otsailak 28)

ELGOIBARKO IZARRA 50  
KULTUR ELKARTEA



## OSASUN GIDA



### OPTIKAK

65\07

IKUS OPTIKO-OPTOMETRISTA

Egunero:  
9:30-13:00  
16:30-20:00

San Bartolome, 10- Elgoibar  
Tel: 943 743 734

183\12

UZURI

- Optometria  
- Kontaktologia

Egunero:  
9:30-13:00 / 16:30-20:00  
San Frantzisko, 21

Elgoibar - Tel: 943 740 359

### HORTZ KUNIKAK

171\12

LEKU EDER

- Diagnostiko digitala  
- Estetika  
- Kirurgia eta implanteak  
- Ortodontzia: haurrak eta helduak  
- Protesiak: finkoak eta eraginak  
- Odontologia orokorra  
- Higienea eta prebentzioa  
- Periodontzia (entzien tratamendua)  
- Haurrentzako tratamenduak  
- PADI

Elena Herrero Lobo  
Aita Agirre enparantza,  
5 behea - Elgoibar  
Tel: 943 530 053  
[lekueder@infomed.es](mailto:lekueder@infomed.es)

### OTORRINOLARINGOLOGIA

183\12

UZURI

- Entzumen protesia  
**BERRIAI**  
- Tapoiak neurria (uretarako tapoiak, zaraten kontrakoak...)  
- Audiometriak  
- Audifonoak  
- Tonometria

Egunero:  
9:30-13:00/ 16:30-20:00

San Frantzisko, 21 - Elgoibar  
Tel: 943 740 359

### FISIOTERAPIA

271\12

AINHOA FISIOTERAPIA ZENTRUA

- Fisioterapia eta osteopatia  
- Eskuterapiak  
- Drenatzaile linfatikoa (Vodder metodoa)  
- Taping neuromuskularra

Jausoro plaza, 6 behea  
Elgoibar (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 531 953  
Tel.: 669 565 745

177\12

fisio&más

Fisioterapia aurreratua eta kirol berregokitzea

- Esku-terapia.  
- E.P.I © (Tendinitis tratamendua, zuntz-haustura)  
- Esku Drainatze linfatikoa (DLM).

- Mesoterapia homeopati-koa:  
+ Traumatologia.  
+ Estetika (zelulitisa, es-triak)

Osasunerako ariketa agin-dua  
(Diabetes, osteoporosis, hipertensio arteriala)

Entrenamendu gidatua

Pilates makinak  
(erabilitazioa)  
3 pertsona gehien.

Txirindulariaren biomekani-ka (kalak, ergonomia bizikle-tan eta lesioen prebentzioa)

Trenbide kalea 13, behea.  
Tel.: 943 740 191  
667 953 628



Andres  
Alberdi

Azkenaldian, gazi-gozoak gurean, Angel. Eta imanak ohi duen eran, burua ezin gertaera horietatik askatu, beste gai guztiak hutsalak iruditzeraino. Zer dugun gozotik?: ba, gaur egiten dituela 95 urte gure aitak; zer, gazitik?: ba, due-la hilabete eskas hil zaigula ama.



Anjel  
Ugarteburu

Hire amaren heriotzean doluminak adierazi neuzkian lez, lagaidak gaur nire zorionak ere ematen. Amari eskerrak eman eta lasai geratu hintzela dinok eta ez jak motiborik falta. Agurraren samina eta pena ezin saihestu, baina bizitza zor deutsaan ama arretaz eta maitasunez zaindu izanaren poza beti izango dok hirekin. Horregatik, zorionak.

Gazira zihoakidak pentsamendua ezinbestean, bizitza guztian erreferentzia nagusia izan dudana itsasargia itzali zaidak eta. Ez ditiat haren begi urdinak sekula gehiago ikusiko; ezta haren ahots, begirada, imintzio, fereka eta are errietarik ere gozatuko. Heriok berekin eraman dik, harentzat ez baita inor ezinbesteko, ezta ama ere! Gogorra egin zaidak, are gehiago hurbil-hurbileko lehenengo pertsonaren akabua eta galtzea izanik. Malkoak, lodi, ugari isuri ditiat ezkutuan. Hiletetan ohikoa den "Agur Jesusen Ama" kantuak eragin zidaan momentorik larriena, neure amari ari bainintzaioan hauek esatean: ...*Baina zugandik alde/ bihotzak ezin du/ zuregana dijoa/ zuga bizi nahi du...* Sentimenduak ezin gobernatu halan!

Negar egiteak ez jaukarak, bestalde, lotsakizunik, gizatasun ederrenaren adierazpena baituk sentimenduak izan eta haiek askatzea. Ezkutuan ezeze agerian ere sarriago egin behar gendukeek negar, bajagok motiborik eta.

**“Heriok berekin eraman dik, harentzat ez baita inor ezinbesteko, ezta ama ere!”**

**“Bizitza zor deutsaan ama arretaz zaindu izanaren poza beti izango dok hirekin”**

Gezurra duk, Angel, gizonezkook beste pasta batekoak garela dioen esapidea. Ez dugula sentiberatasunik? Bai zera! Malko horiek, orduan, zergatik?

Jarrai dezadan, baina, nire strip-tease emozional honekin, trantzeak gozotik ere izan dik eta. Lasai eta bakean joan zuan, 92 urte zitian, ondo zaindu diagu, ez zaiok ez arretarik ez kariñorik falta izan... Eta, gezurra badirudi ere, momenturik gozoena eta gogoan iltzaturik geratu zaidana azken ordukoa izan duk: filmetan bezala, azken hatsa gertu, bi semeok amari esku banatatik helduta geundeneko unea. Bazihoan hura, itzulirik gabeko bidaian joan ere, eta ba al dakik obsesiboki zein hitz zetozkidan burura? *Eskerrik asko, ama. Eskerrik asko, ama.* Nire mundu osoa hitz soil horietara biltzen nian. Ez nian besterik behar eta sentitzen: *Eskerrik asko, ama!* Lasai geratu ninduan.

Nire gurasoak aspaldi joan zituan biak eta hik adierazi lakoxe sentimenduak izana jauzkat gogoan eta bihotzean. Hori bai, beti geratzen dok haien alde are gehiago egin ez izanaren pena edo, paga-ezina baituk zorra... Zein den ederra gurasoak ahalik ondoen zainduta haiei agur egitea! Berezkoa, naturala, bizitza bera txanpon beraren bi aurpegiak erakutsiz: eguna eta gaua, zikloa osatuz.

Seme-alabek ahaztuta, bakarrik hiltzen diren gurasoek edo eta gaixotasunak gazterik eramaten dituen seme-alabek, haiek bai uzten dituztela zauri sendaezinak bihotz-gogoetan. Zer esan gatazka etengabean dauden herrialdeetan jaio eta bizi diren ume eta gazte errukarriez? Onena eman nahi eta ezin mingarrian bizi diren gurasoez?

Gazi-gozoz osatutako salda dok, Andres, gure bizitza eta gutako bakoitza dok norberaren lapikoaren sukaldari. Bizitzak erakusten jok, hala komeni, gazi-gozoaren oreka zaintzen.

Zorionak, ba, Andres, doluminarekin batera, eta zaindu aita Eutimio, ama Martina zaindu huen lez.



ESKERTZA

**JOSE GURRUTXAGA LIZARRALDE**

2014ko otsailaren 6an hil da, 95 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



# Barren

Kalebarren plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - Faxe: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)

**BARREN**ek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enantzikuniki.

KOORDINATZAILEAK Ainhoa Andonegi, Ainara Argoitia KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzirika ADMINISTRARIAK Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro KOLABORATZAILEAK Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga, Danele Sarrigarte, Mikel Olaizola, Esti Gonzalez, Miren Vives, Maitane Mendikute, Janire Elordi INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.860 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:

ELGOIBARKO IZARRA 50  
KULTUR ELKARTEA

Laguntzaileak:



ELGOIBARKO UDALA


elgoibarko  
bizitzeko



MENDAKORO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



## GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enantzikuniki. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com).

### Gure esku dago!

Garai berriak bizi ditugu Euskal Herrian. Garai berri hauez baliatuz, elkarlanaren ildotik urrats berri eta sakonak egiteko unea dela deritzogu. Ezinbestekoa da elkarrekin aurrera egitea ziklo berri eta ilusionagarria irekitzeko, eta bide honetan herritarrok protagonista nagusi bilakatu beharko dugu.

Jarrera positibo honetatik eta norbanakoak zein kolektiboak diren eskubide zibil eta politikoeziko begirunetik abiatuz, demokratikoa eta unibertsala den eskubide batekiko atxikimenduak biltzen gaitu: erabakitzeko eskubidearekiko atxikimenduak, alegia.

Norberak etorkizunari begira proposa ditzakeen proiektuetatik harago, uste dugu posible, beharrezko, egoki eta zilegi dela oinarri demokratikoa duen eskubide hau jendarteratu eta gauzatzeko ekimen kolektiboa. Pentsaera ezberdinen arteko elkargunerako aukera eskaintzen duen eskubideaz ari baikara.

Honengatik guztiagatik, honako hau aldarrikatzen dugu:

- Herri gisa geure etorkizuna erabakitzeko eskubidea dugula.
  - Erabakia hartzea herritarroki dagokigula.
- Herritarroki garaia da!

**Agurtzane Bastida, Ainhoa Mendibil, Ainhoa Lendinez, Ainhoa Usobiaga, Aitor Ayarza, Aitor Etxeberria, Aitor Nova, Alfonso Guilló, Ana Artetxe, Ana Osoro, Ane Odria, Ane Ostolaza, Ander Mujika, Andres Alberdi, Andoni Gabilondo, Antxon Gurrutxaga, Arkaitz Irureta, Asier Arzamendi, Asier Atorrasagasti, Asier Etxaniz, Asier Iturriagaetxeberria, Aritz Olaso, Auritze Maiora, Danièle Zelaia, Edurne Bilbao, Edurne Lasa, Edurne Odriozola, Eloisa Zubiaurre, Eneritz Gonzalez, Elisabete Osoro, Elur Arrieta, Esther Bilbatua, Estibaliz Moreno, Haritz Arrieta, Hodei Otegi, Iban Gandiaga, Iban Quintana, Ibon Serrano, Ibon Arriola, Ikuska Barua, Imanol Garaizabal, Inga Segurola, Iñaki Larrañaga, Iñigo Lariz, Ione Olaizola, Irati Bollar, Itsaso Alguacil, Itziar Ibabe, Itziar Goñi, Joanes Rodriguez, Jon Garate, Jon Rodriguez, Jon Peli Uriguen, Jone Loiola, Jose Luis Odria, Joseba Igartua, Joseba Osoro, Joseba Zinkunegi, Josune Larreina, Joxe-**

**mari Larrañaga, Julene Alberdi, Juli Arregi, Lara Urain, Leire Garate, Maialen Gurrutxaga, Maialen Mugerza, Maider Etxaniz, Maria Cid, Markel Bergara, Mikel Etxaniz, Miren Etxeberria, Nadia Hadi, Nagore Irureta, Nagore Sanz, Naiara Martin, Nerea Bastida, Nerea Etxeberria, Nerea Gil, Nora Hadi, Nerea Lendinez, Olatz Albarran, Olatz Arriola, Olatz Gil, Oskar Zabala, Patxi Betelu, Pello Mendizabal, Pello Rubio, Txomin Mujika, Xabier Cearsolo, Xabier Larrañaga, Zuhaiz Gurrutxaga.**

### ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.



### Espaloi gainean aparkatzen du jende askok:

“Pedro Muguruza kaleko 16. zenbaki inguruan, espaloi gainean uzten du autoa jende askok.

Kale horretan ez dago aparkatzeko arazorik, eta Meliton zubiaren alboan aparkalekua ere badaukagu. Ez dut ulertzen jendeak zergatik uzten duen autoa espaloi gainean. Pasiatzera joaten den jende asko errepidera jaitsi behar izaten da gunehorretan, eta egunen baten ezbeharren bat gertatuko da. Neurriak hartu behar dira lehenbailehen”.



**Maalan errotonda behar da:** “Maalako errotondaren norantza aldatu egin zuten, eta orain, Urazandi auzotik errepidera jais-teko aukera dago. Aldaketa hori egin zutenetik, are gehiago oztopatzen da errotonda, semaforoa gorri dagoenean. Udalak esan zuenez, Foru Aldundiak ikerketa egin behar zuen Maalan errotonda egiteko, baina ez dakigu horri buruz ezer. Maalan benetako errotonda egiteak trafiko arazo asko konponduko lituzke”.



### Merkatu Plazako sarreran

**arrapala behar da:** “Merkatu Plazak ez ditu irisgarritasun neurriak betetzen. Sarreran eskailerak daude, eta horrek asko oztopatzen du sarbidea. Merkatariak irten behar izaten dugu askotan bezeroei laguntzera. Sarrera berritzeak asko erraztuko luke azokarako bidea, eta horrek onura ekarriko liguke guztioi”.



### Gero eta leku gutxiago dago Elgoibarren aparkatzeko:

“Kiroldedirako irisgarritasuna hobetzeko lanak egitea ondo dago, baina zergatik kendu dituzte aparkatzeko lekuak? Herri honetan gero eta zailagoa da aparkatzea. Erdigunean TAO-OTA sistema dago leku gehienetan, eta ondorioz, Elgoibarrera lanera etortzen garenok ezin dugu gunehorietan aparkatu. Erosketak egitera irteten direnentzat aukera ona izango da sistema hori, baina kanpotik lanera etortzen garenontzat sekulako oztopoa da. Auzoetara igo behar izaten dugu, eta auzoetan ere gero eta zailagoa da aparkatzeko lekua aurkitzea. Orain Telefonica aurrean ere bi leku gutxiago daude”.



## Hondakinen gaikako bilketara batuko dira ikastetxeak, enpresak eta ostalaritza

Gaika bildutako hondakin kopurua %12 handitu da

**H**iri hondakinen kudeaketako 2013ko emaitzak eman ditu Elgoibarko Udalak. Oro har, gaika bildutako hondakin kopurua %12 handitu da, eta gaikako bilketan %35era iritsi da Elgoibar 2013an. Hiri hondakinen kudeaketako 2013ko emaitzek "joera ona" erakusten dutela nabarmendu du Alfredo Etxeberriak. "Gaikako bilketan %34,8ko mailara ailegatu gara 2013an, eta %23koa izan zen 2012an". Udalak emandako datuen arabera, 2012an baino hondakin gehiago sortu genuen: 4.246 tona jaso ziren 2012an, eta 4.408 tona iaz. Horietatik 1.535.070 kilo (%34,8) izan ziren gaika jasotako hondakinak.

Era berean, hondakin organikoak jasotzen dituzten marroi koloreko edukiontziak erabiltzeko izena emandako herritarren kopurua %50etik %62ra igo da. Elgoibarren 4.443 familia daude, eta horietako 4.389ri egin zitzaien edukiontzi marroia erabiltzeko deia. 2013. urte amaieran 2.726 familia (%62,11) zeuden izena emanda.

Europak 2016rako hondakinen %60 birziklatzea exijitzen du, eta oraindik ere



kopuru horretatik "urrun" gauden arren, egungo joerari eutsiz, urtea amaitzerako Europak exijitzen dituen helburuetara hurbiltzea nahi dutela adierazi du Etxeberriak.

Elgoibarko Udaleko arduradunek jakinarazitakoaren arabera, hondakinen gaikako bilketara batuko dira aurki Elgoibarko ikastetxeak, enpresak, elkarte gastronomikoak eta ostalaritza. Azken horien kasuan, ostalarien %75ek dago-

eneko sinatu dute hitzarmena Debabarrena Mankomunitatearekin, eta gaikako bilketa egiteko zabor ontzi bereziak jasoko dituzte laster.

Datu horiek ikusita "bide onetik" goazela uste du Etxeberriak, eta honako mezua helarazi nahi die herritarrei: "Guztiok inplikatzeko bagara bakarrik lortuko dugu zaborren kudeaketaren kostua merketzea, eta hori lortzeko zaborra sailkatuta jaso behar dugu".

## IMHk eta Trimek-innovaliak lankidetzara hitzarmena sinatu dute



IMH eta Trimek-Innovaliak lankidetzara hitzarmena sinatu dute, eta horri esker doitasun zentrua martxan jarriko dute IMHn, metrologia 3Dko prestakuntza eta zerbitzu aurreratuak emateko. Jarduera hori garatzeko, funtzio-anitzeko 160 metro koadroko gela laga dio IMHk Trimek-i.

Innovaliako Unitate Metrologikoaren partaidea da Trimek, eta hiru dimentsiotako neurketarako makinak egiten dituen bakarra da Espainian. Innovaliako Unitate Metrologikoa hiru enpresek osatzen dute: Datapixel, Trimek eta Unimetrik-ek. Unitatearen helburua da, Kalitate Kontrolerako eta Metrologia Dimentsionalerako soluzioen diseinua, garapena eta merkaturatzea.

## Izena **Jaime Arrese**



Espainiako Giza Eskubideen aldeko elkarteak 2013ko Giza Eskubideen Sari Nazionalarekin saritu ditu Maixela Lasa, Txema Urkijo eta Jaime Arrese, bakearen eta bizikidetzaren alde egin duten lanagatik. Joan zen astean jaso zuten saria, Madrilén. Sari horrekin, bakearen alde egindako lana aitortu diete, besteak beste, biktimen eta ETAKo kide ohien arteko aurrez aurreko harremanak bultzatu izanagatik. Sarituek Eusko Jaurlaritzaren Biktimen Arretarako Bulegoa kudeatu zuten aurreko agintaldi bietan, eta orduan egin zuten lana aitortu eta eskertu diete horrela. Euskadin bakearen eta elkarbizitzaren alde egin dituzten ekimenak goraiatzaren sariak; biktimak ikasgeletara eraman izana, Glencreeko esperientzia, eta biktima eta presoaren arteko bilerak egin izana, besteak beste.

## Irudia **Txankakoako errotonda**



Joan zen astean hasi zituzten Txankakoan errotonda egiteko lanak, eta martxoan amaituko dituztela jakinarazi dute arduradunek. Trafiko handia pilatzen den orduetan arazo handiak sortzen dira herriko hainbat gunetan, eta arazo horiek errotonda bat eraikita konpon daitezkeela uste dute Udaleko arduradunek. Txankakoako da horietako leku bat, eta hori konpontzeko, errotonda eraikitzeko eskaera egin zion Elgoibarko Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari. Gaur egun Txankakoako bidegurutzeta T itxurako bidegurutzeta da, ezkererako biraketekin, eta oso bidegurutze desegokia da. Hori konpontzeko eta bide segurtasuna hobetzeko Gipuzkoako Foru Aldundiak bidegurutzeta kendu eta birbilgune bat egiteko lanak hasi ditu. Diputazioak Excavaciones y Transportes Orsa enpresari esleitu zizkion lanak, eta hilabete eta erdiko epea izango dute amaitzeko. 75.793,49 euroko (Bez barne) aurrekontua dute lanok.

## **Txarri boda egingo dute Idortoben, hilaren 22an**

Aspaldiko tradizioari jarraituz, txarri boda antolatu du Idortobeko elkarteak otsailaren 22rako. Bazkariak 25 euroko prezioa dauka, eta nahi duen orok har dezake parte. Txorizoa, odolkia eta sahieskiak eskainiko dituzte, besteak beste. Izena emateko ondorengo helbide elektronikora idatzi behar da: [sanpedro-elkartea@hotmail.com](mailto:sanpedro-elkartea@hotmail.com).

## **Sukaldaritza ikastaroa, euskararen transmisioa lantzeko**

HH4 eta LH2 adin tarteko umeak dituzten familientzako sukaldaritza ikastaroa antolatu du Atxutxia- maikak, Elgoibarko Izarraren aisialdi taldeak. "Familia artean hizkuntza transmisioa lantzeko mila modu daudela badakigu, baina zer hobea sukaldean elkarrekin ondo pasatzea baino!", adierazi dute antolatzaileek. Otsailaren 15ean eta 22an, 16:00etatik 18:00etara bitartean izango dira saioak, Ludotekan.

## **David Fernandezekin aurrez aurreko elkarrizketa, gaur**

*Catalunya* etorkizunerantz izeneko hitzaldia eskainiko du David Fernandez Candidadura D'unitat popular alderdiko diputatuak. Elkarrizketa formatuko hitzaldia izango da, eta *Berria* egunkariko zuzendaria Martxe-lo Otamendik egingo dizkio galderak. Arnaldo askatu, politika askatu herri plataformak antolatu du emaldia, eta 19:00etan izango da, Musika Eskolako auditorioan.



# JESUS MARI ASTIGARRAGA

DANOBAT-EKO PRESIDENTE IZANDAKOA



**“Euskarak batzen gaitu, eta kooperatibak jakin behar du hori kanpoan ikustarazten”**

Amaren baserriak, Metalkuak, eman dio ezizena –*Metala*–, eta Danobat kooperatibak egin du ezaguna. Hamabi urte egin ditu Danobat kooperatibako presidente karguan, eta erretiroa hartu berri, Argentinan da orain, ‘motxilero’. Urte sabatikoa hartu du, eta gorputza nekatuz atsedean eman nahi dio buruari. Euskara, mendia eta familia. Horiexek ditu gaur buruan. Gazte denboran alabekin nahi beste egiterik izan ez zuena egin nahi du orain bilobekin: gozatu. Etorkizunaz galdetuta, ideia-dantza darabil buruan, baina ez du ezertara lotu nahi. “Ez dut beste burukominik nahi”.



## **Danobaten aurpegia izan zara urte askoan. Noiz sartu zinen, eta zertara jarri zintuzten?**

1970ean sartu nintzen Danobaten, Arrasaten Industri Maisutza egitetik bueltan. Han, On Jose Maria Arizmendiareta ezagutzeko zortea izan nuen, eta kooperatibismoarekin zeharo enamoraturata iritsi nintzen; pixka bat talibanizatuta ere bai. Gure garaian lanpostua topatzeko ez zegoen burukominik. Tailerrak zain egoten ziren, baina nik garbi neukan ahal nuen neurrian kooperatiban hasi behar nuela lanean, eta Danobaten hasi nintzen. Orduan niretzat Eguzki zen, orduantxe fusio-natu berri zirelako. Muntatze lanetan hasi nintzen, eta handik, bulego teknikorara pasatu nintzen gero. Komertzial lanetara Madrilerara bidali ninduten ondoren, eta han joan nintzen, familia hartuta. 1980. urtea izango zen. Emaztea, baina, ez zen ohitzen han 2 urteko alaba txikiarekin, eta bueltatu ginen atzera Elgoibarrera. Bueltan, bulego teknikoan eta erosketa sailean jardun nuen, eta 2001ean, neuk jakin gabe, presidentetzarako hautagai aukeratu ninduten. Hiru legegintzaldi egin nituen presidentetzan: hamabi urte.

## **Zer topatu zenuen Arrasatetik bueltan?**

Lana topatzeko ez geneukan gaurko burukominik, lan asko zegoen-eta. Politikan, berriz, ez ziren garai errazak. Burgosko prozesuaren garaia zen, eta protesta giroa lantokietara ere iritsi zen. Greba asko izan ziren. Nahas-masa handia izaten zen, eta Danobatek lortu zuen egoera hura arautzea. Ez dut esango kooperatibaren gauza guztiak onak direnik, baina horretan behintzat asmatu genuen, garai hartan geneukan anarkia hura ez zelako inorentzat ona. Greba eskubidea arautzeak bere alde txarrak ere baditu, jakina, gaur Danobaten greba egiteko sekulakoa gertatu beharra dagoelako, baina behintzat politika tailarretik ateratzea lortu dugu.

## **Kooperatiban puntu ilunak ere badirela aitortu duzu. Zeintzuk?**

Gertutasuna galdu dugu. Gure kooperatiba taldeak dimentsio handia hartu du, eta hori kalterako izan da. Horri buelta pare bat eman behar dizkiogu. Gurea moduko kooperatiba handiek arrisku handia dute: burges berriak sortu behar ditugu? Hori da gure beldurra. Giza duintasunaren alde lan egiteaz gain eta herriarekiko elkartasuna sustatzeaz gain, kooperatibismoaren balioetan beti egon da gizartea aldatzeko nahia, gizarteko injustiziak amaitzeko nahia, eta ez dakit ez ote diren ba-

lio horiek apaltzen ari. Gero esango dugu 'merkatuak halakotara behartu gaitu', baina ez; horrek ez digu balio.

## **Zer konponbide dauka horrek?**

Kooperatibaren inguruko prestakuntza eskaini behar diegu langileei. Gaur egun kooperatibara lanera datorrena ez da kontziente enpresa berezi batera datorrela, inork ez diolako azaldu. Kooperatiban ez du balio 'nik nire-rea egin, eta aire!' Baina, gaur, asko eta asko lanpostu baten bila datoz bakar-bakarrik, eta ez dira enpresako parte sentitzen. Baina hori kooperatiba txiki batean egin daiteke, baina handian, 2.000tik gora langile dituenean, zailagoa da. Formazio kooperatiboa behar da, eta agintzen daudenak arduraz jokatzeko eta eredu izatea. Nik neuk, kooperatiba sortu zutenetako asko ezagutzeko zortea izan dut, eta ez dut izenak ematen hasi nahi, baina bat aipatu nahiko nuke: Lazaro Bernedo *Ziarda*. 82 urte ditu, eta Eguzki sortu zutenetako bat izan zen. Lazarok sekula ez dit esan kooperatiba bat zer den, baina kooperatibista izatea zer den irakatsi dit eguneroko lanean. Hasieratik jende askok lagundu dit, eta iritsi naizen lekura iritsi banaiz, ondoan izan ditudanei esker izan da.

**“Gurea moduko kooperatiba handiek arrisku handia dute: burges berriak sortu behar ditugu?”**

**‘Zenbat aldatu diren gauzak! Zenbat aldatu diren langileak!’ . Halaxe esan zigun Danobateko langile beterano talde batek. Zer diozu?** Egia da hori. Obedientzian hezi gintuzten gu, eta gure burutik ez zen pasatzen nagusiago bati kontra egitea. Nahiz eta jakin oker zebilela, guk isil-isilik betetzen genuen esaten zigutena. Gazteek berezkoa duten errebeldia ere bagenuen, jakina. ‘Hau erregeen pare bizi da; besaulki horretatik zer ikusiko du ba!’ eta halakoak geuk ere pentsatzen genituen, baina betetzen genituen haiek esandakoak. Esker ona adierazteko behar morala senti-

tzen genuen. Eta, ziurrenik, orduko agintari edo enpresa arduradun haiek gaurkoak baino ‘diktadoreagoak’ izango ziren, baina errespetua genien. Eredu izanda predikatzen zuten, beharbada gaur baino gehiago. Guk hori topatu genuen, baina hori aldatu da. Nire garaian, proportzioan, emakume gutxi ziren etxetik kanpora lan egiten zutenak, eta gaur, aldiz, etxe gehienetan biek egiten dute kanpoan lan. Norbait lanera kanpora bidaltzeko, adibidez, horrek badauka bere eragina. Eta ez pentsa erraza denik egoera hori zuzentzea! Kooperatibak irtenbidea topatu behar dio horri. Eta azkeneko kontu bat: abiadura. Lehen, patxada handiagorekin egiten genituen gauzak, merkatua bera zelako eske zetorrena. Nik beti esaten dut orain ari garela saltzen ikasten.

## **Eta ematen du asmatu duzuela bidea zein den. 2013an hartu zenuen erretiroa, eta urte hortan Danobatek erreminta makina sektoreko inoizko kontratu handiena lotu zuen.**

Guk uste dugu enpresa kontuak oso ondo egiten ditugula, baina bazkideen gaian hori hala den ez daukat horren garbi. Guk uste dugu enpresa alorrean gure zuzendaritzakoei –bat ez beste guztiak dira bazkide– lan ona egin dutela, baina baita langileek eurek ere. Azken batean langileak eramaten duela enpresaren irudia kanpora. I+D ikerketa eta garapenean ere indar handia jarri dugu, eta jakin dugu behar zen lekuan dirua jartzen. Ondorengoei gutxienez guri laga zigutena laga behar diegu: produktu eta enpresa-egitura on bat.

## **Fagor-renak hautsak harrotu ditu. Kooperatibismoa bera ere krisian ikusi dute batzuek.**

Kontu delikatu da, baina ia ganoraz azaltzen dudana. Gure barruan elkartasun-sistema hain da indartsua, hain da sendoa, beharbada itsututa jardun dugula gai honetan. Gure elkartasun-sistemarekiko fede horrek eraman gaitu, hein batean, gauza batzuk aldatu beharra zeudela ez ikustera. Egurkon ere gertatu zitzaigun hori, maila txikiagoan. Oso mingarria izaten da esatea kooperatiba bat itxi egin behar dela eta itzel kostatu zitzaigun onartzea eta esatea. Zergatik? Eurek bazkideak prest zeudelako %85ean egoteko, Gabonetako extrak-eta beste lagatze-ko... eurentzako euren bizia kooperatiba zen, eta kooperatibak aurrera egiteko, prest zeuden direnak eta bi egiteko. Halakoetan, jakin behar da buru hotzarekin jokatzeko, eta hartu

behar diren erabakiak hartzen. Hori bai, era berean, gai izan behar zara jende horri irten-bidea emateko. Zer gertatu den Fagor Etxetresnak-en? Fagor enblema bat da, kooperatibismoaren bandera-ontzia, eta presio sozial handia egin da bere bueltan. Elkartasun sistema oso ona zuten, eta lagundu zaie asko, ikaragarri, bereziki Fagor taldeak. Nik garbi esango dizut: dirutza itzela eman diogu, sinistu ezineko beste. Taldeko langile guztiek %1a emateko konpromisoa hartu zuten, adibidez, baina ez da jakin hartu behar ziren erabaki zailak garaiz hartzen, eta luzatu da denboran, eta azkenean etorri da etorri dena: horri eutsi ezina. Langileek eurek ere ikusten zuten egoera zein zen, informazioa bazutela, baina egoera horretara ere ohitu egiten da bat eta...

**Arriskuan ikusi zenituzten beste batzuk?**

Kudeaketa aldetik gauzak ez dira ondo egin, eta laguntzen jarraituz gero, arriskua bazegoen. Eta hori baino gehiago: arriskua zegoen jendea beste laguntzeaz aspertzeko eta elkartasun sistema hondoratzeko.

**Eredu izatearena atera duzu. Euskararen gaian, behintzat, Danobat Taldea bada, hein batean, eredugarri.**

Danobat sortu zutenek asko egin zuten euskararen alde. Danobaten eskaera bategatik euskaratu ziren Lagunaroren lehenengo estatutuak ere. Pentsa! Bai, Danobaten ahalegina egin dugu euskararen egoera, ahal genuen neurrian, normalizatzeko. Ni presidente aukeratu nindutenerako euskara batzorde bat bazegoen gurean, eta Zuzendaritza Batzordetik nolabaiteko ofizialtasuna eman genion horri. Batetik, dirua jarri genuen, eta bestetik, baliabide pertsonalak, batzorde hori egiten ari zena indartzeko. Autonomia osoa eman genien, baina, uste genuelako –eta hala pentsatzen jarraitzen dut– borondatez lanean dabilenak askoz gehiago eman deza-keela behartuta hasten denak baino. Borondatez lan izugarria egin dute, eta Zuzendaritza Batzordeak konfiantza osoa izan du beti haiengan.

**Ilunguneren bat identifikatu arren, balorazio onak jaso ditut Danobaten euskarak bizi duen egoeraz galdetu dudanean. Helburua zein da zueen?**

Egon naizen lekutik ez dut dena ikusi, baina uste dut azkeneko urteetan asko aurreratu dela eta euskararen erabilera normalizatu bidean dela Danobaten. Adibide bat jarriko di-

zut: nomina euskara hutsean banatzen hasi ginenean, kargu hartzera etorri zitzaizkidan bi-hiru bazkide. Euren eskubide konstituzionalak urratu zirela esanez hasi zitzaizkidan. Halaxe erantzun nien: “Pentsa esazue zuek zer pentsatuko zuten urteetan euskaldunek, gure estatutuetan, zuenak ere badiren horietan, Danobateko bi hizkuntza ofizialak euskara eta gaztelania direla irakurtzean”. Gaur egunean ez dago halako konturik. Horregatik diotsut nabarmen egin dugula aurrera. Hori guztia instituzionalizatzearen aldekoa izan naiz ni beti, baina horren guztiaren gainetik dago hemen jende askok borondatez egindako lana. Klabea hor dago.

Gaur zortzi-hamar bat lagun batzen dira euskara batzordean Danobaten, tartean Zuzendaritza Batzordeko bat. Azkeneko urteetan, gainera, Danobat Taldearen barruan ere aurrerapauso handia eman da, batzorde komuna sortuta. Eta horri guztiari gehitu behar zaio tailerreko tresneria eta informatikako programak eta abar euskaratzeko egiten dihardugun ahalegina. Zergatik? Gaur tailer-rrera datorrenak gutxi-asko badakielako euskaraz, baina hemen dena erdaraz topatuko balu, erraz lagako lukeelako euskara.

“Liberatuta egoteak aukera eman dit kooperatibismoaren ideiei lotuta segitzeko”

**Euskarak 365 egun kanpainan ere parte hartu zenuen. Zer da zuretzat euskara?**

Identitate bat. Euskarak ez dauka kolorerik. Zati-tuta egon arren, gu herri bat gara, eta euskara da gu denok batzen gaituena. Beraz, kooperatibak, eta Danobateko zehazki, jakin behar du hori kanpoan ikustarazten. Berdin dit ezkerreko edo eskuineko izan, berdin dit abertzalea izan edo ez; euskara hori guztiaren gainetik dago, eta hala egon dadin egin behar dugu lan. Euskara ezin da inoren bandera izan, ez bada denona. Eta zoritxarrez, aurkezpenetan-eta, ez dugu oraindik

hori normaltasunez esaten. Joaten direnen esku lagatzen dugu kontu hori gaur, eta uste dut hori formalizatu beharra daukagula, kooperatibari badagokiolako lan hori ere: gure herria ezagutaraztea. MCCn daukagun erronka handia da hori.

**Merkatuaren aitzakian-edo, ingelesezko izena hartu duzue zuek: Danobat Group.**

Badakit izen ofiziala hori dugula, baina nire hitzetan, Danobat Taldea erabili beti. Nire apustua da ahal dudan leku guztietan euskaraz egitea. Kanpora begira garbi dago euskarak ezingo diola sekula ingelesari aurrea hartu, eta beharbada marketin ikuspuntutik egokiagoa izango da bestea, baina nik nahi dut nire inguruan euskarak gune gehiago irabaztea eta nahi dut lau euskaldun eta bi erdaldun elkartzen garenean, euskaraz hitz egitea ez izatea burukomina. Falloa gurea da.

**Garai bateko aldean jendea prestatuta dago gaur, baina itxuraz, ekintzaileak falta dira. Ikustekoa da ‘ekintzaile’ berbak hartu duen oihartzuna. Zer gertatzen da?**

Belaunaldi aldaketa eginda dago Danobaten, eta gaur, gazte jendea dago agintzen. Garbi dago, beraz, gazte konprometituak badaudela. Baina gero badago beste jende bat, eta horrelakoak beti egon dira, ‘sakrifizio gutxi, errendimendu handia’ leloari helduko diotena, hein batean gizarteak horra garamatza-lako. Eskubideak aldarrikatzen dituzte, baina betebeharrak ahazten dituzte, eta kooperatibak bietatik dauka. Dena den, ez nator bat gaztea=ardugabea delako horrekin. Gazteen %80 langileak dira, jende prestatua. Gertatzen dena da beste %20 horrek protagonismo handia hartzen duela.

**Horrenbeste urtean ez da gutxi izango kooperatibari eman diozuna, baina zuri zer eman dizu kooperatibak?**

Bai. Kooperatibak eman dit segurtasun bat lanean, eman dit mundua, ibiltzeko aukera, eman dit pentsatzen dudana esateko bidea, eman dit harreman-sare handia, jende jator asko ezagutzeko aukera eta eman dit presidente izateko aukera. Horri buruz gauza bat esan nahiko nuke: presidentea liberatu egin behar da, presidente lanetarako. Liberatuta egoteak aukera eman dit kooperatibismoaren ideiei lotuta segitzeko eta jendearekin momentu guztietan harremanetan egoteko.

**Eta arduraz ari garela... Zuk zeuk onartu duzu zein zaila den gaur lan mundua eta familia uztartzea. Zuk nola egin duzu?**



Nik abantaila handia izan dut: nire emazteak [Mari Cruz Fernandez de Campinun] etxean egin dut beti lana. 'Abantaila' hitzarekin kontuz ibili beharra dago, baina, bai, hotzean hitz eginda, inork ez dit ukatuko abantaila denik. 7:30ean sartu tailerrean eta iluntzera arte lan egiten banuen ere, nik ez neukan etxeko kontuen kezkarik. Orain ditut kontuak. Egokitze aldian nago. Emazteak beti esaten dit: 'Jesus Mari, nik ez dut erretirorik hartu e! Zeu zara erretiroa hartu duzunala!'. Zoritxarez, ez dut alabetaz nahi beste disfrutatzen aukerarik izan, eta orain, gozatzen ari naiz bilobekin. Bihotza lapurtu didate.

**Jarri zaitetz orain zure alaben lekuan. Ikasketak dituzte, zorionez lana ere bai, eta haien bikotekideek ere etxetik kanpora lan egiten dute. Noizbait entzungo zenien lana eta familia uztartzea oso zaila dela. Zer esaten diezu?** Gauzak asko aldatu dira, eta ez dago erraza. Nik hori ikusten dut, baina nik ezin diet esan zer egin behar duten edo nola egin behar duten. Gauza horiek euren artean konpondu behar dituzte. Nik zer esango diet ba? Oreak bilatu behar da, eta enpresak ere jarri behar du bere partea, ahal denean malgutasunez jokatzu eta langile horri beste konpentsazioen bat eman, dela ordue-tan edo dena delakoan, baina hori da dagoena. Tailerrak malgutasun horren alde egin behar du, baina erabateko irtenbiderik nekez emango du.

#### **Lege aldaketa batek konpon dezake?**

Lagundu bai. Gaur egungo egoerara egokitu behar dugu denok. Nik neuk ez dut burukomin hori izan, baina ulertzen diet, jakina, gaurko gurasoei. Jende gaztea dago zuzendaritzan orain, eta asmatuko dute zelan egin. Lehiakortasun handia dago, bai, baina kooperatibak asmatu behar du hor oreka topatzen, ez lagatzen dena alde batera, lehiakortasunaren izenean. Danobaten ordutegi malgua egon badago, guraso direnek umeak ikastolara eramateko aukera izan dezaten eta abar, eta sarri pentsatu izan dut gurea moduko enpresek egin duten ahalegin hori egin beharko luketela ikastolek eta gainerako gizarte erakundeek ere. Ematen du beti enpresa egokitu behar dela gainerako guztien egutegi eta ordutegira.

#### **Urte sabatikoa hartzeko asmoa duzula jakin dut. Tourmaletoko apustu baten berri iritsi zait eta beste erronkaren baten berri ere izan dut. Kontatzekorik bada tartean?**

Ez nuen pentsatzen irabaziko nuenik. Ordubeteko abantaila eman zidan lagunak, baina hala ere, ez nuen pentsatzen bizikletaz irabaziko nionik. Hark ez zekien, baina ni oso burugogorra naiz! Orain, Argentina-ra noa [hilaren 6an joan zen, 40 egunerako]. Aspalditik dator kontua, eta publikoki eskerrak eman nahi dizkiot emazteari, baimena eman didalako. Berak ez zuen etorri nahi, eta tailerreko lagun batekin, *Laprare-*

*kin* [Mikel Ariznabarreta], eta haren ilobarekin noa.

#### **Desafio iturako beste bidairen bat ere egiteko duzula ere entzun dut...**

*Jajaja.* Bai, bai. Iñaki Konde eta Iñazio Garmendiarekin plana eginda daukat maiatzean Granadara bizikletaz joateko.

#### **Biak ere sasoiko gizonak. Nola ikusten duzu zeure burua?**

Nire erritmorra joan beharko dira! Sufritzea tokatuko zait, baina biak ere lagun onak ditut, eta badakit oso ondo pasatuko dudala.

#### **Horrenbeste buru nekatzeren ostean, beraz, gorputza nekatzea pentsatu duzu behin jubilazioa hartuta.**

Nekatu? Ez, ez. Horrek indarra ematen du. Animos baxu nagoenean mendira joan eta indarberri egiten naiz. Zapaturu joaten naiz mendira, Agustinekin [Gonzalez]. Ez dago Karakatera igotzea baino gauza hoberik. Aurten, lehenengoz, bide zuzenetik igo naiz.

#### **Mendira inor ez ei doa lehiatzera, baina seguru zuk ere hartu zenuela denbora!**

*Jajaja.* Bai, hori ere egin genuen. Nik aitortuko dizut tontorrera iristen naizenean beti begiratzen diodala erlojuari. Gustatzen zait azkeneko aldiko denbora ontzea.

#### **Eta? sasoiko al zaude?**

Ondo, ondo. *Jajaja.* Esan egin behar al dizut? Nahikoa ondo ibili ginen, bai.

## Erretratu zaharra



**1954**

1954. urteko maiatzaren 2an ateratako erretratu da aste honetakoa. Finalista Eguna ospatu zuten egun horretan. Ehun mendi egiteagatik domina jaso zuen Juan Maria Etxeberria (†) "Txepetxak", Iñaki Konderen (†) eskutik.



**elgoibar ikastola**

**HERRI ONURKORAKO** P. M. Urruzuno Kooperatiba

**eskerrik asko!  
gurean izena  
eman duzuen  
guztioi**



[www.elgoibarikastola.net](http://www.elgoibarikastola.net)



943 744441



[elgoibar@ikastola.net](mailto:elgoibar@ikastola.net)

Urtarrilean...

**JAIOTAKOAK**



**Aner Alvarez Berdonces**  
Urtarrilak 3  
Alex eta Mari Paz



**Julen Loiola Jauregi**  
Urtarrilak 13  
Iñigo eta Miren



**Martin Mujika Cid**  
Urtarrilak 18  
Ander eta Maria

**Aietz Arizmendi Gandarias**  
Urtarrilak 2  
Iker eta Bidatz

**Nuria Vazquez Oliveira**  
Urtarrilak 6  
Augusto eta Rosana

**Laia Mujika Lopez**  
Urtarrilak 22  
Arkaitz eta Cristina

**Ekaitz Leonardo Oñederra**  
Urtarrilak 29  
Iker eta Amaia

**HILDAKOAK**

- Ana Maria Gomez Gomez • 78 urte • Urtarrilak 3  
 Eduardo Etxebarria Urbieto • 72 urte • Urtarrilak 5  
 Felix Zabaleta Etxebarria • 90 urte • Urtarrilak 5  
 Carmen Garcia Tarrío • 78 urte • Urtarrilak 5  
 Guillermo Regil Irureta • 83 urte • Urtarrilak 9  
 Karlos Jorge Alberdi • 46 urte • Urtarrilak 9  
 Jose Ignacio Perez Parada • 55 urte • Urtarrilak 12  
 Isidoro Goikolea Elempuru • 94 urte • Urtarrilak 13  
 Bartolome Aizpitarte Astigarraga • 80 urte • Urtarrilak 14  
 Jose Manuel Acosta Calvo • 95 urte • Urtarrilak 17  
 Jose Fernandez Dominguez • 84 urte • Urtarrilak 19  
 Luis Arrieta Barrenetxea • 84 urte • Urtarrilak 19  
 Gloria Suarez Etxebarria • 99 urte • Urtarrilak 22  
 Luisa Eguren Larreategi • 89 urte • Urtarrilak 26  
 Juana Alkorta Aulestiarte • 94 urte • Urtarrilak 26  
 Mercedes Etxaniz Urruzuno • 96 urte • Urtarrilak 27  
 Luis Izagirre Arrizabalaga • 69 urte • Urtarrilak 29

**ETXEBERRIA**

**Hileta zerbitzua OSOA  
eta 24 ORDUKOA**

**TANATORIOA**



**KUTXAK  
TRASLADOAK  
KOROAK**

**NORBANAKOEI  
eta  
KONPAINIEI  
zuzenduriko  
zerbitzuak**

**Erietxe zentruetan  
zerbitzuak**

**Santa Klara, 14 • 20870 ELGOIBAR**  
 Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27  
 (Etxekoa) 943 74 01 17- 943 74 16 56  
 (Sakelekoa) 635 756 295

Atal honetan zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu **BARREN** astekarira **943 744 112** telefonora edo bidali e-postaz **barren@elgoibarkoizarra.com** helbide elektronikora.



**Etxe kaleratzeen gaiak herritar askori eragiten die. Orain dela urte batzuk etxebizitzek zeukaten prezioak eraginda, dirutza handiko hipotekak sinatu zituzten askok, eta asko dira orain bankeetxeek ezarritako baldintzak betetzeko arazoak dituztenak. Etxe Kaleratzeak Stop plataformak lan handia egiten dihardu egoera horretan daudenei laguntzeko, eta erraza ez den arren, hainbat kasutan lortu dute banketxeekin negoziatuz egoera horretan direnei irtenbidea ematea. Elgoibarren aurkitu dugu kasu bat, eta datozen orriotan jasoko dugu protagonistaren testigantza. Berak hala eskatuta, anonimotasuna gordeko dugu, haren izena eta sorterrria asmatutakoak dira.**

Ainhoa Andonegi

# Bai, posible da

**2**005. urtea zen. Beste hainbat bikotek bezala, Maria eta bere bikotekideak etxea erostea erabaki zuten, garesti egon arren, etxebizitza erostea “inbertsioa” zelako. Ez zuten jauregi bat nahi; bizimodua elkarrekin egiteko etxebizitza duina nahi zuten soilik. 217.000 euroko mailegua eskatu zuten Kutxan. Eros-tear zeuden etxebizitza ez zen nahikoa mailegu hori bermatzeko, eta bere etxeaz gain, amaginarrebaren etxea ere jarri zuten abal modura. IRPH indizean oinarritutako mailegua eman zien Kutxak, 35 urtean itzultzeko baldintzarekin.

Hasieran dena ondo zihoan. Hilero mila euro inguruko kuota ordaintzen zuten hutsik egin gabe.

Egoerak, baina, okerrera egin zuen. Kri-siaren eraginez, lanik gabe geratu ziren Maria eta bere bikotekidea 2012. urte amaie-ran, eta kuotak ordaindu ezinda geratu ziren. 2013a urte “kritikoa” izan da. Berehala hasi ziren banketxearen presioa igartzeko: gutu-nak iristen zitzaizkien ia hilero, kuotak or-

## Neurriak garaiz hartuta, badago etxea ez galtzeko aukera

daindu gabe zituztela esateko, eta ez bazituzten kuota horiek ordaintzen, beraien etxeaz gain, amaginarrebarena ere kenduko zietela mehatxu egiten zieten. Urduritasun egoerari, inpotentziarena gehitu zitzaion orduan: “Nahi eta ezin. Ez zen ez genuela ordaindu nahi, ezin genuela baizik”. 8 eta 4 urteko bi seme-alaba dituzte, eta une hartan etxean sartzen zen dirua jateko behar zuten: “Oso gogorra da egoera; tokatzen zaizun arte ezin duzu imajinatu. Suizidio kasuak entzuten hasi ginen, eta ulertu ere egiten nituen. Neure buruaz beste egitea ere pasatu

zitzaidan burutik, baina seme-alabengatik atera nuen aurrera egiteko indarra”. Maria galiziarra da sortzez, eta bere senideak han bizi dira. Une batez hara itzuli beharko zuela ere pentsatu zuen, gurasoen etxera. “Izugarrri” kostatu zitzaion bere egoera onartu eta inguruko kontatzea. “Lotsa” ematen zion bankuarekin zorrak zituela onartzea, eta nolabait esateko, “errudun” ere sentitzen zen, amagirrabaren etxea ere arriskuan zegoelako. “Hainbeste urteko lanarekin ordainduta-ko etxea galtzeaz zegoen nire amaginarreba, eta berak ere oso gaizki pasatu zuen”. Aitor-tzen du, dena den, ingurukoek besoak za-balik hartu zutela egoeraren berri jakin zute-nean, eta denak azaldu zitzaizkiola zutena emateko prest.

### Etxe Kaleratzeak Stop

Lagun bati esker jarri zen harremanetan Etxe Kaleratzeak Stop plataformako kideekin, eta haiei esker hasi zen argia ikusten. Etxe kaleratzeen kontrako taldeko kideek euren esku zegoen guztia egin zuten, eta



## PREKARIETATEAREN ETA POBREZIAREN KONTRAKO TALDEA

# Prekarietateak baditu milaka aurpegi

**A**zken lau urteotan %25 egin du gora pobrezian daudenen kopuruak Hego Euskal Herrian, eta Elgoibarren ere izan du eragina gorakada horrek. Azken datuen arabera, %12,5ekoa da Elgoibarko langabezia tasa; 94 bat familiak eskatzen dituzte elikagaiak gizarte zerbitzuetan, eta ia 11.000 kg. janari banatu zituzten Elgoibarren. Bestalde, etxe kaleratzeen gaia Elgoibarrera ere iritsi da, eta lau familia etxea galtzeko arriskuan daude.

Egoera horrekin kezkatuta, prekarietatearen eta pobrezia-aren aurkako taldea sortu zuten hainbat elgoibartarrek orain dela pare bat urte, eta astero biltzen dira pobrezia-aren kontra lan egiteko. Andoni Segundo

da taldeko kideetako bat, eta berak azaldu dizkio BARRENI taldearen zereginak.

Lehenik eta behin Elgoibarko pobrezia egoeraren diagnosia egin nahi dute, “diagnosi zehatza”. Badakite zaila izango dela, pobrezia ez delako ikusten, eta pairatzen dutenei “lotsa” ematen dielako pobrezia egoera hori publiko egitea. Hala ere, arazoari irtenbideak jarri ahal izateko pobrezia-aren mapa egin nahi dute. Udalari eskatu zioten prekarietatearen mahaia osatzeko, mapa hori hobeto egin ahal izateko, eta Udalak onartu egin zuen eskaera. Gizarte-ratzeko Mahaia sortu dute. Talde “anitza” da, eta epe luzera lantzeko ardatzak zehazten ari dira. Horrez gain, informazio kanpaina bat egiteko helburua jarri zioten taldeari. Izan ere, Elgoibarren talde asko dabilta ongizate alorrean lanean, eta Udaleko Ongizate Sailak ere badihardu lanean, baina jende askok ez dauka informaziorik.

Segundok argi esan du ez dutela inor pobrezia egoeran laga nahi informazio faltagatik. Benetako informazio kanpaina bat egin nahi dute, Elgoibarko etxe guztietara iritsiko den informazio kanpaina. Laguntza mota asko daude, eta askok ez dituzte ezagutzen, eta ondorioz, ez dituzte eskatzen. Lan hori burutzeko, ongizate alorrean diharduten eragileen arteko lankidetzaz ezinbestekoa ikusi zuten: Caritas, Nagusilan, Elkartzen, Stop Desahucios, Gurutze Gorria eta beste hainbat ere talde honen barruan daude. *Prekarietateak baditu milaka aurpegi* mahaingurua antolatuta zuten ia, eta horrekin irten ziren kalera estreina-koz. Baina kontua ez da hor bukatu: informazio mahaia eta panelak jartzen dituzte kalean aldiro, eta datorren egunean, hilaren 20an, protesta zaratzua egingo dute, etxe kaleratzeen kontra, bereziki. San Frantzisko iturrian izango da, 18:30ean.

hasiera hasieratik eskaini zioten babesa Mariari. Horri esker, “Itxaropen izpiak” ikusten hasi zen.

Banketxearekin negoziatzera joateko laguntza eskaini zioten Mariari. Bakarrik sentitzen zen, babesik gabe, eta “erraldoi” baten kontra borrokan egiteko ahul ikusten zuen bere burua. Kaleratzeak Stop taldekoei esker, banketxearekin negoziazioa bide onetik joan zen, eta bost urterako atsedeen moduko bat lortu du, hau da, datozen bost urteotan kuota osorik ordaindu beharrean, interesak bakarrik ordainduko ditu. Beste era batean esanda, hilean mila euroko kuota ordaintzetik 150 bat euro ordaintzera pasatu da Maria. Hori bai, mailegua bost urtez luzatuko zaio.

Iñaki Kortabitarte Stop Kaleratzeak taldeko kideak azaldutakoaren arabera, negoziatioa ez zen erraza izan. Hasieran Kutxabankek ezetz esaten zuen behin eta berriz, baina legedian egon den aldaketa bati esker, “zirrikitua” ireki da, eta baldintza jakin batzuk betetzen dituzten kasuan, posible da bost urteko atsedeen moduko hori lortzea. Banke-

txea derrigortuta dago hori onartzera, legeak behartzen duelako. Kortabitartek esandakoaren arabera, baina, baldintza oso zorrotzak dira eta jende gutxiak betetzen ditu. Hala ere, kasu batzuetan posible da etxea ez galtzea.

### Bilerak egunetan

Stop Kaleratzeak plataformakoek asetero egiten dituzte bilerak Eibarren. Egunetan batzen dira Portalean, eta edozein herritarrek har dezake parte. Informazio bilerak izaten dira, eta horrelakoetan ondo informatuta egoteak asko laguntzen du. Plataformatik esan dutenez, bi urtean Elgoibarko hamalau familia jarri dira berarekin harremanetan, eta hori “asko” da. “Soldata asko jaitzi dira, eta lan gutxi dago. Egun batetik bestera edozein egon daiteke etxea galtzear”. Azken urteetan gainera, etxebizitzaren balioa asko jaitsi da, eta etxea saldu arren, baliteke nahikoa ez izatea banketxearekin zorra kitatzeko. Plataformako kideek argi diote miraririk ez dutela egiten, baina neurriak garaiz hartuz

gero, badaudela aukerak. Horixe da go-mendioa: arrisku egoera txikiena ikustean plataformara jotea. “Kuota guztiak ordainduta eduki arren, arriskua ikusten den unean hartu behar dira neurriak, gero beranduegi izan daitekeelako”.

Mariaren kasuan posible izan da. Horixe da hain zuzen ere Etxe Kaleratzeak Stop plataformaren lema: “Bai, ahal da”, eta horixe idatzi zuen letra larriz Mariak bere Facebookeko profilean Kutxabanken jakinarazpena jaso zuenean.

Eskerrak eman nahi dizkie Etxe Kaleratzeak Stop taldekoei, senide bat balitz moduan hartu dutelako: “Ez genuen elkar ezagutzen, eta eman didaten babesa izugarria izan da”. 2005etik gaur arte asko aldatu da Mariaren bizimodua, eta seguruenik etxea saldu egin beharko dutela adierazi du, baina orain lasai egiten du lo. Lan txiki bat dauka, eta Gizarte Ongizate Sailetik ere jasotzen ditu laguntzak. Elgoibarko Udalarik ere eskerrak eman nahi dizkio, berarekin izan duten jarreragatik.

## GREGORIO VIVES

DEBABARRENEKO ODOL EMAILEEN  
ELKARTEKO DELEGATUA

Hamar urtez jardun du Gregorio Vivesek Debabarreneko odol emaitzen elkarteko delegatu lanetan, eta martxoan utziko du kargua, elkartearen Batzar Nagusiaren ostean. Gustura jardun du bere eginkizunean, baina erreleboa emateko ordua iritsi dela uste du.

Ainhoa Andonegi

“Gutxien uste  
duzunean  
behar izaten da  
odola”



**Noiz eta nola hasi zinen odola ematen?**

14 urterekin hasi nintzen Sigman ikasten, eta hantxe jarraitu nuen gero lanean. Ramon Maiztegi zenak ere han egiten zuen lan, eta hari esker hasi nintzen ni odola ematen, 23 bat urterekin. Ramon Maiztegi izan zen Elgoibarko Odol Emaitzen Elkartea sortu zuenetako bat, eta hark animatu ninduen odola ematera. Fermin Ruiz, Eustakio Goñi eta Ramon Maiztegi izan ziren sortzaileak. Ramoni esker, Sigman lanean geunden gazte pila bat hasi ginen odola ematen. Elgoibarko herriak asko zor dio Ramon Maiztegiari. Borondatezko lan handia egiten zuen herriarentzat, eta asteburuetan Donostiara joaten zen, ospitaleetan ingresatuta zeuden elgoibar-

tarrak bisitatuzera. Denak bisitatu arte ez zuen atsedenik hartzen.

**Nola moldatzen zineten garai hartan odola emateko?**

Mendaro oraindik ez zegoen herri bezala eratuta, eta Elgoibarretara etortzen ginen odola ematera. Mendaroko gazteak motoan etortzen ginen! San Bartolome kalean zegoen elizarena zen erai-kin bat, eta hantxe ematen genuen odola. Sigmako praktikanteak ateratzen zigun! Gerora, hona [BARREN astekariaren lokala] ekarri gintuzten eta azkenik, anbulategira. Gaur egungo lokala droga dependentsia zutenei laguntzeko erabiltzen zuten, eta arazo hura arindu zenean, odol emaitzen elkarteari eman zitoten.

**Nola hartu zenuen odola emateko kontzientzia?**



Gure aitak ere ematen zuen odola, eta hark erakutsi zigun. Gure aita Mendaroko Albisua medikuaren oso laguna zen, eta elkarrekin joaten ziren mendira ehizara edo perretxikotara. Behin mendian zirela, emakume bat umea egiten hasi zen Mendaroko baserri batean, eta medikuaren bila joan ziren mendira. Aita berarekin joan zen. Emakumeak odola behar zuen, eta gure aitak eman zion. Gaur egun oraindik bizi da emakume hori.

#### **Odol emaleen elkartetik gazteei egiten diete odola ematera joateko deia. Nola animatuko zenituzke?**

Jende askok esaten dit beldurra ematen diola odola emateak, baina orduan galdetzen diet benetan odola behar lukeen gertukoren bat izango balute, ea emango luketen, eta denek baietz erantzuten dute. Pentsatu behar dugu beti dagoela odola behar duen norbait, eta hari laguntzeko eman behar da odola. Ni soldaduskan nengoela, nire gurasoek auto istripua izan zuten. Koinatua hil egin zen, eta gurasoak zauritu. Aitak odol transfusioa behar zuen, eta neure burua aurkeztu nuen odola emateko, baina ez zidaten utzi. Oso urduri nengoen, eta odola emateko lasai egotea ezinbestekoa da. Ramon Maiztegiari deitu nion orduan ere, eta hark lortu zuen berehala nire aitari odola emango zion norbait. Ez dut sekula ahaztuko; bigarren aita moduko bat izan zen Ramon Maiztegi niretzat. Gure etxean denok gara odol emaleak.

#### **Elgoibarko odol emaleen elkartean hasi zinen, eta Mendarokoa sortu zenuen.**

Bai. Ramoni laguntzen nion Elgoibarko elkarteko papelak eramaten, eta esan nion Mendaro herri bezala sortzen zenean, han hasiko ginela odola ematen. Eta halaxe egin genuen. Agustín Lazarobaster eta haren emazteak, eta nire emazteak eta neuk sortu genuen elkartea. Gaur egun oraindik neuk jarraitzen dut lanean, baina martxoan lagako dut postua. Elgoibarko arduraduna Castañares da, mendaroarra, eta harekin ere harreman handia daukat. Giro oso ona daukagu delegatuen artean.

#### **Azken hamar urteotan Debarreneko odol emaleen elkarteko delegatua ere izan zara. Zein egoeratan laga duzu elkartea?**

Ondo. Debako arduradunak beteko du orain nire lekua. Deba, Mendaro, Elgoibar, Eibar, Bergara, Oñati, Antzuola eta Elgeta sartzen dira bailarako elkartean, eta apur bat horietako gorabeheren berri izatea da delegatuaren zeregina. Gipuzkoako odol bankua etortzen da herriz-herriz, eta odola Donostiara eramaten dute. Une honetan odol bankua ondo dago, baina beti dago odola emateko beharra. Gutxien uste duzunean behar izaten da odola, eta oso beharrezkoa da odol emaleak egotea. Gazteak animatu nahi ditugu odola ematera.

## m o t z

### **Inauterien harira, txokolatada eta disko-festa antolatu du Arno Guraso Elkarteak martxoaren 1erako, Udalaren babesarekin**

Badatoz inauteriak ere gerturatzen, eta ohi legez, Arno Guraso Elkarteak hainbat ekintza antolatu ditu martxoaren 1erako eta 4 rako. Martxoaren 1ean, 12:30ean, kalejiran irtengo dira Bizi Poza txaranga-koak, eta arratsaldean, 17:30etik aurrera, txokolate beroa banatuko dute frontoian. Diskoteka ere izango da, eta horrekin batera, mozorro-tutakoen desfilea ere egingo da. Martxoaren 4an, 17:30ean, tailerrak, oreka jolasak eta abar luzea izango dira frontoian, Zirkoaren Mundua izeneko programaren barruan.

### **Emakumeentzako frontenis maratonia antolatu dute martxoaren 8rako**

Emakumeentzako frontenis maratonia antolatu dute Mendaron Emakumeen Nazioarteko Egunerako. Interesatuek martxoaren 4a arteko epea dute izena emateko. Izenemateak doan dira, eta udaletxeko harreran egin behar dira.

### **Otsailaren 23an bukatzen da Aingeru Guardako bertso-bazkarirako izena emateko epea**

Azkeneko urteetan izan duen estimazioa ikusita, aurten ere antolatu dute bertso-bazkaria Aingeru Guardako jaien barruan. Martxoaren 2an izango da, domekan, eta Andoni Egañak eta Iker Zubeldiak girotuko dute bazkalostea. Aizpe elkartean izango da bazkaria, 14:30etan. Ticketak Txirristakan eta Ormolan daude salgai, 25 euroan.



## ‘Elgoibarko lurrazpiak’ lana liburutegian jarri dute kontsultagai

PDF formatoan utzi dute egileek



**E**lgoibarko lurrazpiko sekretuak aztertzen urteak daramatza Elgoibar Espeleologia Taldeko Angel Maria Tobajasek eta lur azpietako kobazulo, mehategi eta tunelen inguruan bildutako informazio guztia PDF formatoan bildu, eta herritarren eskura jarri du Elgoibarko Udal Liburutegian. Idatzizko azalpenak, argazkiak, eta berak egindako plano eta ilustrazioak ere batu ditu Tobajasek. Bere asmoa liburuia egitea zen, eta urteetan jardun du proiektu hori finantzatzeko duen norbaiten bila, baina momentuz ez du ezer lortu eta, horregatik jarri du Udal Liburutegian, gutxienez nahi duenak kontsultatzeko modua izan dezan.

### 'Erraiak' nobela aurkeztuko du Danele Sarriugartek, martxoaren 11n

*Erraiak* izeneko nobelarekin bide berri bat hasiko du Danele Sarriugarte idazle elgoibartarrak bere ibilbidean. Martxoaren 11n, aurkeztuko du *Erraiak*, Elkar argitaletxeak aurreratu duenez. Bikote haustura mingarri bat du abiapuntu eleberririk. Irakurleari, baina, emakumezko baten kontakizuna iritsiko zaio, obsesio bihurtuta. Pertsonaiaren barrunbeetan barneratu da idazlea, eta haren zokorik ezkutuenak, *erraiak*, lagako ditu agerian.



### 'Sexpearemente' antzezlan gaur Elgoibarren

Sexpeare konpainiak *Sexpearemente* umorezko antzezlan eskainiko dute gaur Elgoibarko Herriko Antzokian (20:30). Sarrerak [www.kutxabank.es](http://www.kutxabank.es) bitartez edo eta Herriko Antzokiko lehiatilan erosi behar dira. 10 euroan jarri dituzte sarrerak salgai (ikasleek eta gazte txarteldunek 7 euroan dituzte).

### Eskolarteko Bertsolari Txapelketaren kanporaketa bat Elgoibarren jokatu da

Elgoibar Ikastolan jokatu da Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketako kanporaketetako bat. Ekimen hau Euskal Herriko Ikastolen Elkartearekin elkarlanean antolatu du ikastolak. Apirilaren 4an jokatu da kanporaketa. 15:00etan hasiko da idatzizko proba eta 16:30etik aurrera bat-bateko saioak jokatu dira.

### Elgoibarko dantzariak fin aritu ziren Billabonako Txapelketan

Elgoibarko Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskolako Naroa Lopez, Saioa Marcos eta Maialen Loiola ikasleak fin aritu ziren asteburuan Billabonako jokatu zuten Soinu Zahar Txapelketako kanporaketan. Guztira, 38 neska lehiatu ziren, bi mailatan: 7-11 urte artekoak (A saila) eta 13,14 eta 15 urtekoak (B.2 saila). Hurrengo kanporaketa Beasainen jokatu dute, otsailaren 22 eta 23an, eta Elgoibarko lau dantzariak parte hartuko dute: Eneko Gonzalez, Amaia Sasiain, Saioa Marcos eta Maialen Loiola.



### 'Bikokote' haurrentzako antzerkia, domekan

Lanku Produkzioak-ek *Bikokote* antzezlan eskainiko du domekan, Herriko Antzokian (16:30). 5 urtetik aurrerako haurrei zuzendutako lana da, eta sarrerak lehiatilan bertan erosi behar dira.

# Mendaron jokatu da etzi urrezko aizkolarien binakako txapelketa saioa

Finalerdiak izango dira, eta lau aizkolarari ariko dira

**G**aur maila gorenean lehiatzen diren aizkolaria lanean ikusteko aukera izango da domeka honetan, Mendaroko frontoian. Urrezko aizkolarien Eusko Label binakako aizkora txapelketako finalerdiak jokatu dute lau aizkolarik: Iñaki Azurmendi eta Unai Otaño batetik, eta Donato Larretxea eta Felix Etxeberria, bestetik. Jaialdia biribiltzeko, Izeta III.aren eta Inhar Urruzuno harri-jasotzailearen —Bizkaiko gaur egungo txapeladuna— erakustaldia ere iragarri dute antolatzaileek. Lau harrirekin arituko dira. 125 kiloko harri errektangularrak, 100 kiloko zilindro zaharra, 100 kiloko kubikoa eta 100 kiloko harri biribila.

Egursport enpresak antolatzen du jaialdia, Mendaroko Udalaren babesarekin. Mendaron, A eta B multzoetako lehen sailkatuek neurtuko dituzte indarrak elkarren aurka. Maila handiko aizkolaria dira laurak ere. Iñaki Azurmendi aizkolaria beasaindarrak esate baterako, Euskal Herriko maila nagusiko aizkora txapelketako finala irabazi zuen Elgoibarren, joan den urteko abenduan. Aizkolariek 30 enbor ebagi beharko dituzte lauren artean. Sarrerak 10 euroan jarri dituzte salgai —16 urtez azpikoentzat doan—.

## ‘Eskua’ proiektua aurkeztuko du Igor Arenazak hilaren 20an, euskara eta kirola uztartzen dituen egitasmoa

*Kirolaz hazi eta hezi* izenburuko hitzaldia eskainiko du Igor Arenaza futbolari profesionala izandakoak hilaren 20an, Elgoibarko Kultur Etxeko hitzaldi gelan, 19:00etan. Bestera esanda, *Eskua* programa aurkeztuko du, euskara eta kirola batzen dituen proiektua. Aretxabaleta futbol taldeko koordinatzailea da gaur Igor Arenaza, eta *Eskua* egitasmoa jarri du martxan Debagoieneko eta Debabarrenako herrietako hainbat futbol taldetan. Futbolak eta kirolak orokorrean haurren heziketan duten garrantziaz hitz egingo du Arenazak, eta horretarako, futbol zelaietan eta Eskola Kiroleko jolastoki askotan entrenatzaileek eta gurasoek eurek erakusten duten jarrereri ere egingo die errepaso. Elgoibarko Eskola Kirolean edo edozein taldetan haur eta gazteekin aritzen diren entrenatzaile, laguntzaile eta gurasoei zuzendutako hitzaldia da.

## Izaskun Estibaritz eta Jose Inazio Izagirren lan bat saritu dute, ‘Pyreinaica’ sarietan



Euskal Mendizaletasunaren 28. galaren barruan, *Pyreinaica* sariak banatu ziren joan den barixakuan Iruñean. Mendi artikuluen lehiaketan Izaskun Estibaritz eta Jose Inazio Izagirre elgoibartarren lan batek, *Tresviso: bidexka sinesgaitzak* izenekoak, jaso zuen bigarren saria. (325 euro eta garaikurra). Lehen saria Elorrioko Gotzon Irazolaren *La oculta Cara N del Udalatx* artikulua-rentzat izan zen. 500 euro eta garaikurra jaso zuten saritzat. Argazki lehiaketako lehen saria, berri, Bergarako Juan Jose Lopez Azurmendiren *Desierto blanco* (Egipto). *Antiguo fondo marino al este del Sahara* izeneko bildumak jaso zuen.

## EMAITZAK

### FUTBOLA

Gernika 0 – Haundi 0 (3. maila)

Ordizia 2 – Elgoibar 2 (Erreg.)

Elgoibar 1 – Berriotxo 4 (Neskek)

Elgoibar 1 – Ilintxa 2 (Jubenilak)

Ordizia 4 – Elgoibar 2 (Kadete A)

Elgoibar 6 – Zumaiako 1 (Kadete B)

Ikasberri 1 – Elgoibar 6 (Lehenengo infantila)

Aretxabaleta Uda 3 – Anaitasuna 3 (Infantil txiki)

### ARETO FUTBOLA

Intxaurrondo 3 – King Kong kafetegia 10 (Jubenilak)

Concepto Egile 1 – Pinseque 1

### ESKUBALOA

Lauko Elgoibar 26 – Aiala Zarautz 24 (senior neskek)

Alcorta Forging Group 32 – Egia 23 (senior mutilak)

CDB Leizaran 28 – Gabaz Elgoibar 20 (senior mutil.)

Deca Elgoibar 29 – Eibar Eskubaloia 5 (Inf. mutilak)

Zarazpe Pulpo 33 – Federopticos Ikus 16 (Inf. neskek)

Marina Pulpo 9 – Aterpe 26 (Infantil neskek)

Sukia Elgoibar 31 – La Salle Legazpi 1 (Esk. neskek)

### PILOTA

Udaberri Txapelketa

Eibar 22 – Lagunak 11 (1. mailako nagusiak)

Eibar 22 – Lagunak 17 (2. mailako nagusiak)

Lagunak 12 – Lapke 22 (3. mailako kadeteak)

Palaz

Lagunak 25 – Urnieta 10 (2. mailako nagusiak)

## AGENDA

### FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 15

10:00 Elgoibar – Arrasate (Infantil txiki)

12:00 Elgoibar – Anaitasuna (Kadete A)

16:30 Haundi – Durangoko Kulturala

Domekia, 16

16:30 Elgoibar – Ilintxa (Erregionala)

### ESKUBALOA (Kiroldegian)

Zapatua, 15

12:45 Grupo Cometel – La Salle Legazpi (Inf. neska)

16:00 Ganaz Elgoibar – Ordizia (Sen. mutilak)

17:45 Pneumax Txariduna – Ereintza (Kad. mutilak)

19:15 Beristain banaketak – Usurbil Ke (Jub. mutil)

Domekia, 16

10:30 San Roke kafetegia – Tropaia Pulpo (Inf. nes.)

11:45 Deca Elgoibar – Urnieta Guria

### PILOTA

Barixakua, 14

21:30 Lagunak – Ziortza (1. mailako nagusiak)

**LANA**

**ESKAERA**

- Neska eskaintzen da garbiketak egiteko edo ume zein nagusiak zaintzeko. Esperientziaduna. ☎ **616 465 940**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Interna. Esperientzia dut, eta paperak legez. ☎ **602 384 491**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zein umeak zaintzeko eta garbiketak lanak egiteko. ☎ **638 863 019**
- Emakumea eskaintzen da lanerako. Esperientzia dut geriatrian, umeak zaintzen, zerbitzari edo dendar lanetan. ☎ **688 901 667 / 943 530 908**
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko zein sukaldari laguntzaile lanetarako. ☎ **697 735 046**
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka edo interna. ☎ **669 311 385**
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka edo interna. ☎ **653 156 403**
- Emakumea eskaintzen da umeak zein nagusiak zaintzeko, edo garbiketak lanak egiteko. Orduka edo interna. ☎ **631 101 186**
- Emakumea eskaintzen da umeak zein nagusiak zaintzeko, edo garbiketak lanak egiteko. Orduka edo interna. ☎ **631 101 975**
- Emakumea eskaintzen da umeak zein nagusiak zaintzeko, edo garbiketak lanak egiteko. Orduka edo interna. ☎ **626 052 165**
- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko edo garbiketak egiteko. ☎ **654 304 337**
- Emakumea eskaintzen da umeak zein nagusiak zaintzeko, edo garbiketak lanak egiteko. ☎ **631 572 831**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo garbiketak egiteko. ☎ **616 457 254**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. ☎ **606 354 982**

- Emakumea eskaintzen da umeak zein nagusiak zaintzeko, edo garbiketak lanak egiteko. Orduka edo interna. Esperientziaduna. ☎ **632 516 861**
- Emakumea eskaintzen da umeak zein nagusiak zaintzeko, edo garbiketak lanak egiteko. Orduka edo interna. Esperientziaduna. ☎ **638 205 490**
- Emakume euskalduna eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Interna edo orduka, Elgoibarren zein inguruko herrietan. ☎ **631 418 130**
- Emakume euskalduna eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Interna. ☎ **632 597 073**
- Emakume euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egiteko edo adinekoak zaintzeko. Orduka. ☎ **628 524 420**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko, garbiketak egiteko, zerbitzari edo dendar lanetarako... ☎ **688 901 667 / 943 530 908**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko zein garbiketak egiteko. ☎ **699 232 823**
- Emakumea lan bila. Etxeak garbitzen, adinekoak zaintzen edo zerbitzari lanetan egingo nuke lan. Orduka, interna, gaez, egunez. ☎ **626 914 904**
- Gizona eskaintzen da lanerako. Garbiketak egiten eta atezain lanetan esperientzia. Karretila altxagailurako karneta. ☎ **616 370 323**
- Emakumea adinekoak zaintzeko prest, interna. ☎ **699 611 871**
- Emakumea lan bila: adinekoak edo umeak zaintzeko prest, orduka edo interna. ☎ **689 571 882**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Geriatria laguntzaile ikasketak ditut. ☎ **943 741 080**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. ☎ **642 609 678**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka. ☎ **659 813 248**

**ESKAITZA**

- Baserrian lan egiteko pertsona behar da. ☎ **666 557 538**

- Tabernari emakumezkoa behar da Elgoibarko taberna batean lan egiteko asteburuetan. Bidai CVA, argazkiarekin. [kamarera@hotmail.com](mailto:kamarera@hotmail.com)

**ETXEBIZITZAK**

- Pisua hartuko nukea alokairuan, konpartitzeko. ☎ **602 490 595**
- Etxea alokatzen dut Urazandin. ☎ **660 522 587**
- Mutil euskaldunak logela hartuko luke alokairuan, Elgoibarren. ☎ **619 678 826**

**LOKALAK**

- Bulegoa salgai, Elgoibar erdigunean. 25m2. komuna dauka. 36.000 euro. ☎ **677 731 061**

**BESTELAKOAK**

- Air R. Jacket poltsa beltza ahaztu du norbaitek BARRREKO erredakzioan. Sagar bat eta labana dituz barruan.
- Spinning egiteko bizikleta salgai. Egoera onean. Prezio oso ona. ☎ **666 110 602**
- Bikote batentzako logelarako altzariak salgai. Ume gelarako moisesa, sehaska eta aldagailua ere saltzen ditut. Egoera onean. ☎ **660 606 506**

**PARTIKULARRAK**

- Magisteritza ikasleak klase partikularrak ematen ditu. LH eta DBH1 eta 2. maila. ☎ **634 588 605**
- Lizentziatua eskaintzen da matematika, fisika, marrazketa... klaseak emateko, DBH edota Batxilergoko mailetan. Euskaraz edo gaztelaniaz, bakarka zein taldeka. ☎ **699 495 278**



**P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar**  
☎ **943 743 140 - rosapf@telefonica.net**



**- Beheko solairuko etxebizitza baten jabea naiz, eta kaletik zuzenean daukat etxerako sarrera. Ez daukat portalera sarbiderik. Etxe-jabeen batzordean, portal barru osoa margotzea eta argiak aldatzea erabaki zen. Presidenteak oraintxe pasatu dit ordaindu beharrekoaren zenbatekoa. Batzarrean adostu zuten denok kopuru berdina ordaindu behar genuela, eta jakina, niri dagokidan partaide-kuota baino dezentez handiagoa da ordaintzea tokatzen zaidana. Zenbaten oniritzia behar da halako erabaki bat hartzeko?**

Lehenengo eta behin, etxerako sarbidea kaletik zuzenean izanda, ez daukazu portal barruko mantenu-obra horien gastuak ordaindu beharrik. Eskrituran izango dituzu zehaztuta zeintzuk gastu tokatzen zaizkizun ordaintzea eta zeintzuk ez. Kasu honetan, baina, gastu horri gainerakoek egin beharko diote aurre.

Bigarrenik, gastuak ordaintzeko irizpideak aldatu ahal izateko, legeak dio etxe-jabe guztiek edota partaide-kuota guztiek aho batez onetsi behar dutela

**Gomendioa: Legeak exijitzen duena bete ez arren -etxe-jabe guztien adostasunez hartzea erabakia-, batzarrean gastuak ordaintzeko irizpideak aldatzea erabakitzen bada, bizilagun horrek erabaki hori inpugnatzeko aukera izango du.**

**ROSA Mª PINTADO:** Etxaldean Administrazioako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749





• Zorionak, **Arai**, astelehenean 2 urteko bete zenituelako. Familia guztien partez, muxu potolo bat.




• Zorionak, **Goiatz**, atzo 8 urte potolo bete zenituelako. Muxu handi bat, familiko guztien partez.



• Zorionak, **Miren**, astelehenean 4 urte beteko dituzulako. Etxe guztien partez, bereziki lker eta Aneren partez.



• Zorionak, **Ane**, igande 3 urte beteko dituzulako. Oso ondo pasa eguna, eta muxu handi bat, etxe guztien partez.



• Zorionak, **Sare**, gaur zure lehen urtebetetze eguna delako. Jarraitu hain bihurri eta alai. Mila muxu zuretzat. Markelen, amaren, aitaren eta familikoen partez.



• Zorionak **Haizea Urbizuri**, 5 urte beteko dituelako hilaren 15ean. Aittitta eta amamaren partez.



• Zorionak, **Xiana**, domekan 4 urte beteko dituzulako. Familia osoaren partez, bereziki aittitta eta amamaren partez.



• Zorionak, **Sara!** Bihar 2 urteko beteko dituzu! Familikoen partez, eta bereziki Nagoreren partez.



• Zorionak, **Roke!** Konturatu orduko bete duzu lehenengo urtekoa. Familiko guztien partez, eta bereziki Noraren partez.



• Zorionak, **Iraia Mir.** Hilaren 18an 6 urte beteko dituzulako. Familiko guztien partez.



• Zorionak, **Julen**, asteazkenean, hilak 12an, bi urteko bete zenituelako. Familikoen partez, muxu potolo bat.



• Zorionak, **Maddi**, zure hamaikagarren urtebetetze egunean. Maite zaitugun guztien partez, muxu handi bat.



• Iritsi da otsailaren 14a, maiteminduen eguna. Iritsi da, bai, zuen egun handia! Zorionak, **bikote**, eta urte askotarako! Ondo-ondo pasa gaur, eta gorde indarrak biharko!



• Zorionak, **printzesa**, otsailaren 8an 5 urte bete zenituelako. Muxu handi bat, familiko guztien partez.



## Zoriondu ezazu **BARREN**en!

### PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra:

**4'50€**

Argazki bikoitza:

**7€**

Hirukoitza:

**9€**

Hiru lagunetik gorako taldeak:

**15€**

### ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra:

**3'50€**

Argazki bikoitza:

**6€**

Hirukoitza:

**8€**

Hiru lagunetik gorako taldeak:

**12€**

Argazkiak **eguzten eguerdia (12:00etarako)**

baino lehen ekarri behar dira

BARRENEKO bulegora,

edo [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

e-postara bidali.

## 14 barixakua 16 domeka

### Antzerkia

**20:30** 'Sexpearemente'

Sexpeare Produksioak taldeak aurkeztuko du, Herriko Antzokian.

### Musika

**18:30** Kale Kantariak

Kale Kantariak entsegua egingo dute, otsailaren 22ko ferian kantatzeko. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

### Hitzaldia

**19:00** 'Catalunya etorkizunerantz'

Jendaurreko elkarrizketa egingo dio Martxelo Otamendi *Berriako* zuzendariak David Fernandez CUPeko diputatuari. Musika Eskolako auditorioan.

### Kirola

**9:30** Mendi irteera

Herri Eskolako gurasoek antolatuta, Aitzorrotz mendira joango dira (738m.). Sigmako aparkalekuan batuko dira.

### Antzerkia

**16:30** 'Bikokote'

Ume eta gurasoentzako antzerkia. Herriko Antzokian.

## 20 eguena

### Ipuin kontalaria

**17:00** Maider Galartza ipuin kontalaria

Bi saio eskainiko ditu, Udal Liburutegian.

### Protesta

**18:30** Kazerolada

Etxe kaleratzeen kontrako protesta zaratzatsua egingo dute, San Frantzisko iturrian.

### Hitzaldia

**19:00** Kirolaz hazi eta hezi

Igor Arenatza futbolari ohiak hitzaldia eskainiko du. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

## 21 barixakua

### Bideo forum

**21:30** 'Comprométete'

Haizeak antolatuta, *Comprométete* filma landuko dute Loredi Salegirekin, Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Kafea eta pastak banatuko dituzte.

## ZINEA

«La vida secreta de Walter Mitty»

15, zapatua: 19:00/22:15

16, domeka: 19:00

17, astelehena: 21:30



Zuzendaria: Ben Stiller. AEB, 2013. Iraupena: 114 min. Generoa: Komedia, abenturak. Aktoreak: Ben Stiller (Walter Mitty), Kristen Wiig (Cheryl), Shirley MacLaine (Edna), Adam Scott (Ted Hendricks), Sean Penn (Sean O'Connell), Patton Oswalt Carl Walter Mitty aldizkari bateko erredaktore eta argazkilaria da. Noizean behin opor mentalak hartzen ditu burua deskantsatzeko, eta fantasiako mundu paralelo batean murgiltzen da. Mitty eta bere lankidea lana galtzeko arriskuan ikusiko dira, eta ondorioz benetako bidaia egin beharko du munduan barrena.

## BOTIKA ORDUTEGIAK: 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

### GUARDIAK

09:00 - 22:00	22:00 - 24:00	24:00 - 09:00
14 Ibañez 15 Garitaonandia 16 Garitaonandia 17 Etxeberria 18 Fernandez 19 Garitaonandia 20 Zabaleta	Astelehenetik igandera  Yudego	Azkue (Eibar) Toribio Etxebarria 4 (943 202 344)

\* Larrialdietarako Eibarko anbulategira jo behar da.

**Fernandez** Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro) - Tel: 943 756 142

**Ibañez** Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel: 943 751 638

**Zabaleta** Kalebarren, 9 (Soraluze) Tel: 943 751 384

Just Dance  
2014 txapelketako  
irabazlea  
**Alaitz C.** izan da.  
Zorionak!



Oraindik ez zara bazkide? Hemendik ikasturte bukaerarako **kuota 30 eurokoa da!** Informazio gehiago ludotekan.



ESKERTZA

## ALFREDO MONREAL SARACHO

*Ez egin negarrik  
horrenbeste barre eginarazi  
dizuen honengatik*

Beti izango zara gurekin



*2014ko otsailaren 6an hil zen, 82 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



ESKERTZA

## JESUS GARCIA GARCIA

2014ko urtarrilaren 28an hil zen, Ourensen, 80 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskerrak eman nahi dizkio Elgoibarko  
Udaltzaingoari, berarekin izandako jarreragatik.



ESKERTZA

## BENITO MARIN PEREZ

2014ko otsailaren 8an hil zen, 82 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

## PEDRO ARRILLAGA GARATE

2014ko otsailaren 10ean hil da, 96 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



I. URTEURRENA

## ROSA ITURRIA OTAMENDI

2013ko otsailaren 14an hil zen, 58 urte zituela. I.urteurreneko meza  
zapatuan, otsailaren 15ean, izango da arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San  
Bartolome parrokian. Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.





# Gremioen GIDA



## Aroztegiak

### Asima

Mota guztietako arotz lanak  
Ermuaranbide, 18  
☎ 687 15 02 26  
☎ 650 02 66 31

### Biena

Neurrira egindako lana  
Ermuaranbide, 12-14- 16 behea  
☎/Faxa: 943 74 31 16  
[www.biena.es](http://www.biena.es)  
[info@biena.es](mailto:info@biena.es)

### Imar

Aroztegia  
Olaso 15,55 pabillioia - A1  
☎ 943 53 14 71  
☎ 609 05 49 78  
Era guztietako arotz-lanak

### Lodoso Leihoak

Sigmako industrialdea  
Xixillon 2-2. pabillioia - 3. zenb.  
☎ 943 74 34 90  
Faxa: 943 74 73 12  
[www.lodoso.es](http://www.lodoso.es)

### Ullazia

Aroztegia eta enbalajeak  
Santa Klara, 10  
☎ 943 74 05 47



## Igeltseritza

### E. Arandia

Urasandi, 22 behea  
☎ 605 70 52 04



## Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

### Ibámar

Bernardo Ezenarro, 2  
☎ 943 531 847  
☎ 647 463 436 (Floren)

### Ongi

Pedro Muguruza etorbidea,  
11 behea  
☎ 943 254 522

### Pagoaga

Biltegia eta tailerra  
San Antolin, 13  
☎ 943 740 279  
Bulegoa eta erakusketa  
Pedro Migel Uruzuno, 8  
☎ 943 943 740 512  
[tienda@pagoagasa.com](mailto:tienda@pagoagasa.com)

### Pagoerrota

Herriko Enparantza, 10 behea  
MENDARO  
☎ 943 756 044/659 334 323

### Tellabide

Azpilgoeta, 7 - Mendaro  
☎ 943 755 062/607 755 062

### Santana Iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17  
☎ 943 740 530/605 714 905  
Faxa: 943 531 825



## Elektrizitatea

### Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza  
Morkaiko, 1  
☎ 943 74 12 80

### Azpeleta

San Frantzisko, 51  
☎ 943 74 12 38

### Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)  
Mendaro  
☎ 659 934 964



## Pinturak

### Biok dekorazioa S.L.

Upaiz zaharra, 14 behea  
☎ 943 74 15 52  
☎ 606 43 11 19-20

